

## UDAL-BATZARRA 9/07

### UDAL-BATZARRAK, 2007ko URRIAREN 4ean EGINDAKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

#### **PARTAIDEAK:**

#### **ALKATEA:**

Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka

#### **ZINEGOTZIAK:**

Ainitze Etxaniz Iraola  
Joseba Agirrezabala Ayestaran  
Eider Garmendia Arrieta  
Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga  
Alazne Ruiz Luluaga  
Gregorio Zuaznabar Urkola  
Fidel Azpiroz Arrillaga  
Jose Ignacio Otermin Garmendia

#### **IDAZKARIA:**

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETako Udaletxean, 2007ko urriaren 4ean iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, ohiko Bilkura egin asmoz Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

#### **1.- 2007KO UZTAILAREN 4EAN OSPATURIKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengo adierazten du:

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

El portavoz del grupo político EAJ/PNV, D. Fidel Azpiroz Arrillaga manifiesta lo siguiente:

“Alkateak eginiko hainbat proposamenetan agertzen da aho batez onartuak izan zirela. Guk nolabait ixilik egonda ulertu genuen abstentzioa egiten genuela eta ez aho batez onartu. Azken batean alkatetzak proposaturiko gauzak dira eta ez dugu ezer esatekorik zentzu horretan. Aktan agertzen da 2,3, 4 eta 5 puntuan zenbait zati aho batez onartuak izan direla. 5. puntuko zati batean, udal diruzainak legeak

eskatutako bermearen aurretikan agertzen den proposamena, aho batez onartzen dugula agertzen da et aguk ez genuen horrela ulertu, ixildu egin ginen beraz gehiago ulertzen dugu abstentzioa”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Abstentzioa uste dut, momentu hartan ez bazenu esan aho batez bezala onartua ulertzen dela, ezta Nekane?”

Udaleko Idazkariak erantzuten du:

“Pleno honetan ni ez nintzen egon. Normatibak esaten du alkateak proposamen guztiak bozkatzea eraman behar dituela. Akta irakurrita badirudi alkateak puntuak ez zituela bozketara eraman. Nik proposatuko nizuke hau gerta ez dadin plenoetan aztertzen diren gai guztiak bozketara eramatea. Aipatzen ari garen plenoari buruz, norbait ez bazegoen ados puntu batekin momentuan jakinarazi behar zuen”.-

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengo adierazten du:

“Guk ez genuen zuzenean onartzen zuek esaten zenutena, besteak beste Batzordetan ez zegoelako inolako proposamena gureganako. Zuek esaten baduzue, bale. Horrek ez du esannahi guk onartzen dugunik zuek esandakoa. Horrela ulertu bazenute, horrela ulertu zen”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Zuenganako proposamenik ez zegoenik ez nago ados, Batzorde guztiak irekiak ziren eta Batzorde guztietan jartzen zuen gureak zeintzuk izango ziren eta zuentzako zeintzuk”.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengo adierazten du:

“Tokatzen zitzaigulako”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Ez esan behintzat, zure aldeko proposamenik ez zegoenik”.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengo adierazten du:

“Batzordetan partehartzea tokatzen zaigu; bestea da, batzorde horren liderazgoa ematea edo ez ematea. Hor aukerarik emen ez zaigunez, guri onartzea aho batez edo ez onartzea verdín zaigu. Zentzu horretan gehiago ixilik egotea zen”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Konbersazio hau behin bakarrik izango dugu. Hemen dagoen mahaia ikusita, 7 eta 2, batzordetako liderazgoa eskatzen ari zara orain? Hori lehen eskatu beharko zenuke”.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengo adierazten du:

“Horregatik esan dut, nola ez zaigu aukera eman, gure ixilik egotea ez dela aho batez onestea”.

Udalbatzak 2007ko uztailaren 4ean egindako bilkuraren akta irakurri eta onetsirik geratu da.	Es leida y aprobada el acta de la sesión celebrada con fecha 4 de julio de 2007.
--	--

**2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 276 ZENBAKITIK 402 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.**

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.	El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.
---	--

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengo adierazten du:

“294 eta 295 dekretuak. Asesore juridikoak. Jakin nahi dugu pertsona hauek sei hilabete hauetan egingo dituzten txosten teknikoak onartu den kontratuaren barruan dauden edo horretaz aparte izango den”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Txosten tekniko batzuk bideratu dituzte beste batzuk bidean daude, lan hori egiten ari dira eta kontratuaren barruan. Egingo dituzten txosten guztiak bistan egongo dira. Horrela ez zaigu gertatu zuen legislaturan. Pilar Amenabarren zenbait txosten ez dauzkagu hemen; dexente falta dira eta ordainduta daude”.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengo adierazten du:

“Esango didazu zeintzu diren”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Badaude babes ofizialeko etxeetakoak, Orbinox, Anoeta Lantzen, txosten batzuk hemen inork ikusi ez dituenak. Zerrenda luze xamarra pasako zaizu.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengo adierazten du:

“Baita argitu ez ote litzatekeen egongo inkompatibilitat kasurik. Alde batetik Rai kiroldegi eta babes ofizialeko etxeetan bera delako tekniko eta aldi berean udalaren aholkularia. Oskrren kasuan, bazegoen Alaitz Zugastirekin errekurtsio bat, Oskarrek bazuen bere partea defenza bezala, orduan nolabiat inkompatibilitate arrisku hori ikusi duzue?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ez dut uste dagoenik. Berriz ere galdetuko dugu eta balego bideratuko genuke”.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengoa adierazten du:

“343 dekretua , ordainketa bat da. Pibote inoxidable batzuen. Nik, alkatetza garaian erositakoak dira, destino bat bazuten ta ez ditut inon jarrita ikusi, planik bada, non jarrita daude?”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Esaten badiguzu non jartzeko asmoa zenuen?”

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengoa adierazten du:

“Juanjorekin adostuta zegoen txokolateri ondoan kotxeak aparkatzen zituztelako, hori bat zen. Badakit gehiago esku zirela noizbait beharra bazegoen. Ez dakit jarrita dauden ala ez”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ez badituzu ikusi, ez dira jarrita egongo. Zuk non jartzeko asmoa zenuen? Juanjorekin adostuta egon arren, iruditzen zait hori niri ere esan behar zenidala”.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengoa adierazten du:

“Hainbat gauza esan zitzaizkizun et anik aurretikan ez nuen eze jaso”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Zu hemen zinen”.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengoa adierazten du:

“351 dekretua. Ez da espezifikatzen zein batzordetan edo non landu den akordio hori. Agian, forma emateko akatsen bat izango da. Zentzu horretan argitasun gehixeago ematea nahi genuke”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Nik orain ez dakit ba ze batzordetan ikusi zen”.

2007 urteko 276tik 402ra, biak barne egindako ebazpenak direla eta; korporakideek jakituen geratzen dira.

La Corporación se da por enterada de las resoluciones dictadas correspondiente a los números comprendidos entre el 276 al 402 del año 2007, ambos inclusive.

### **3.- ANOETAKO BAKE EPAILE ETA ORDEZKOAREN HAUTAKETA.**

Alkate jaunak bertaratutakoei zera adierazten die:

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes:

“Bukatu egin zen epaile lanak egiteko zeukan denbora; lau urterako izaten da eta ordezkoa ere aukeratu behar da. Eskaerak aurkezteko epean, gaur egun epaile lanak egiten dituen Mikel Calleja eta gero M<sup>a</sup> Isabel Iztueta aurkeztu ziren. Udaltzak, gehingo osoaren aldeko bozkarekin hautatu behar du, biak hautatu behar ditugu. Titular modura orain arte Mikel ari denez eta guk bere aurka ezer ez dugunez, guk proposatuko genuke Mikel izatea eta ordezkoa M<sup>a</sup> Isabel”.

Bake-epailearen, bai titular bai ordezkoaren aukeraketa egiteko hasiera eman zaion espedientearen berri eman ondoren, bertan, jarraitu beharreko legalitate eta prozedurari buruz Udaletxeko AOTk luzaturiko txostena agertzen delari.

Dada cuenta del expediente incoado para el nombramiento de Juez de Paz, tanto titular como sustituto, en el que obra el informe emitido por el TAG del Ayuntamiento sobre legalidad aplicable y procedimiento para llevarlo a término.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Se acuerda por unanimidad de los reundios:

Lehena.- Mikel Calleja Elizaran, N.A.N zkia 15.965.707, 44 urtekoa Bake-Epaile titularra izendatzea eta M<sup>a</sup> Isabel Iztueta Ugidos, N.A.N zkia 72.457.549M, 32 urtekoa Bake-Epaile ordezkoa izendatzea.

Primero.- Elegir a D. Mikel Calleja Elizaran, D.N.I nº 15.965.707, de 44 años de edad Juez de Paz titular y a Dña. M<sup>a</sup> Isabel Iztueta Ugidos, D.N.I nº 72.457.549-M, de 32 años de edad Juez de Paz sustituto.

Bigarren.- Erabaki honen berri, Tolosako Lehen Auzialdiko eta Argibideetarako Epaile Jaunari jakinaraztea, Justizi Auzitegi Gorenaren Gobernu Sailara eramán dezan.

Segundo.- Remitir el acuerdo adoptado al Juez de Primera Instancia e Instrucción de Tolosa (Guipúzcoa), para su elevación a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia.

### **4.- AHT GELDITU ELKARLANAK AURKEZTURIKO MOZIOA.**

Alkate jaunak Joseba Agirrezabala

El Sr. Alcalde cede la palabra al

Ayestaran zinegotziari eman dio hitza eta | concejal D. Joseba Agirrezabala Ayestaran  
honek bertaratutakoei zera adierazten die: | quien manifiesta a los presentes:

“Bere garaian ikusten da 2005ean mozio bat aurkeztu zen, aurreko legealdian, eta atzera geratu zen. Guk, mozio honi helduz, ikusten dugu proiektua oso garrantzitsua dela eta proiektu horrek eragin handia duela besteak beste ingurunean, eraso latza jasoko duela, globalizazio prozesuan interesei entzuten duen makroproiektua da, elitista, ez du batzen zatitu baizik eta batez ere inposaturiko proiektu handi bat da. Horren aurrean mozioak hiru puntu aurkezten ditu eta irakurri egingo ditut:

.../...

- 1.- Udal honek, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektuaren inguruan, lehendabizi ondo informatuko du ingurugiroan, nekazaritzan, bertako ekonomian, lurraldearen antolakuntzan, energien ekoizpenean bere hornikuntzarako, natur baliabideen ustiapenean,... izango duen eraginez.
- 2.- Informazioa, eztabaida sakona eta serioa egin ondoren, Udal honek, Anoetako herritarrei AHT proiektuaren inguruan kontsulta egingo die.
- 3.- Udal honek, bitartean, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua gelditzeko bitarteko guztiak jarriko ditu eta egitasmoa berehala geratzea eskateko dio Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta Espainiar Estatuko Gobernuari”.

Alkate jaunak galdetzen du:

“Puntu honi buruz, zerbait esateko?”

EAJ alderdi politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz zinegotziak zera galdetzen du:

“Aipatu hiru puntu horietatik informazioaren gaian guk alderdi bezala informazioa ematekoaren aldekoak izan gara beti eta eman izan dugu egon denean, ez dagoenean ezin da eman. Eduki genuen legealdiaren azken zatian, bilera bat Garraio eta Errepide sailburuarekin eta eman zitzaigun informazioa zen Fomentok egiten ari zen proiektua eta Eusko Jaurlaritzak zeukan proiektu basikoa nolabait ezkontzen ari zirela. Ibilbidearen nondik norakoa; nondik barrena zehazteko momentua ez zela momentu hartan. Arrez gero, legealdiaren amaieran ere galdera berdina eta behin eta birritan egin izan dugu eta erantzuna izan da oraindik ere teknikoak ari dirla nolabait hori aztertzen. Informazioa zentzu horretan ez zegoen, ezin zen eman. Proiektu basikoarena berriz zeuden planoak, bere garaian AHT eskatuta eskuratu zitzairen eta horretaz aparte agenda 21ean nolabait ekimenetan adierazita geratu zen informazio hori zegoenean eman behar zela eta bestela espekulazio hutsa da ez dagoenean informazioa ematea. Guk ulertzen genuen, informazio hori eskuratutakoan herriari jakinarazi behar zitzaioala baino informazio zehatza eta benetakoa. Aipatu zitzaigun 2007 urte bukaerarako izango ote zen aipatu dudan proiektuaren ezkontza hori”

Joseba Agirrezabala zinegotzi jaunak galdetzen du:

“Argi dago legealdian utzi zenutela aparte baina galdera izango litzateke legealdi honetan zein jarrera duzue? Ze ikuspuntu?”.

Alkate jaunak galdetzen du:

“Nik ez dut oso ongi ulertu. Esan duzu Fomento eta Eusko Jaurlaritzaren proiektuak ezkontzen ari direla, guri dagokigun lurraldean bakarrik edo Euskal Herri osoan?. Ez dakit nola litekeen oraindik proiektuak

ezkontzen egotea eta zenbait lekutan desjabetzak martxan egotea, nondik pasatzen ez dakite eta lurrak dejabetzen daude?”.

EAJ alderdi politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz zinegotziak zera esaten du:

“Zuk badakizu proiektu horren ezeuzioa bi eratan ezeuzaturua dagoela. Bat da Bizkaia eta Araba Fomentoaren esku eta Gipuzkoaren adarra ari ziren lotzen”.

Alkate jaunak galdetzen du:

“Proiektu hori uste duzu Beasaingoa alde batetik egingo dute eta Anoetakoa bestetik? Tolosa-Beasain zati hori aterata dago, uztailaren azken aldera atera zuten eta hilabeteko epea zeukaten udalek alegazioak aurkezteko. Hori bakarrik egin dute, besterik ez? Horrelako makroproiektu batean esan nahi didazu puzzle bat bezala egiten ari direla, barkatu baina ez dizut sinesten”.

EAJ alderdi politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz zinegotziak zera esaten du:

“Pentsatzen dut, herri honetako alkate bezala jakin beharko zenuke momentu honetan proiektu hori nola dagoen!”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ez dakigulako eta inork informazioa ematen ez digulako informazio eskaera dago”.

EAJ alderdi politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz zinegotziak zera esaten du:

“Zure lehenengo eginkizunetako bat informazioa edukitzea da eta ez mozioa ekarri edo ez ekartzea”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Nere eginkizunak zeintzuk diren nik erabakiko dut”.

Eider Garmendia Arrieta zinegotziak erantzuten du:

“Orain arte ez duzu informaziorik eudki eta zuk orain hori aurpegira botatzen diguzu?. Barkatu, ezin dut onartu. Berak, alkate bezala, jakin beharko luke eta zu orain arte 15 minutu aritu zara esaten orain arte ez zegoela ezer garbi eta informazioa hola edo hala ematekotan ez duzutela inolako informaziorik eman. Orain badago informazio, zeren alkateak jakin beharko luke. Ez dizut ezer ulertzen. Hori da pelota beste bati botatzea. Zuk ez zenekin ezer, nahiz eta periodikotan informazioa agertu.”.

EAJ alderdi politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz zinegotziak zera esaten du:

“Nik esan dut informazio objetiboa. Perikori ez badiot gaizki ulertu, mozio honekin jabetu dela ulertu dut”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Jabetu ez, informazioa eskatu. Nondik nora doan aspaldi jabetuta gaude eta ze kalte ekar dezake ere bai. Hemen hori buruz, ondo esan duzun bezala, ez dago behar hainbeste informaziorik. Niri ez zait buruan sartzen, Tolosa-Beasain zatiaren alegazioak aurkezteko epea irekia dute eta Beasain-Andoain bitartekoa egin gabe dago. Noiz hasi behar du? Niri hori ez zait buruan sartzen eta esaten badidazu bi proiektuak ezkontzen ari direla ongi baina nik ez dizut sinistuko hori bukatu gabe dagoenik eta informazio hori ez bada atera, ez da atera, ez daukagu, guri ez zaigu iritxi eta Jaurlaritza berak ere Udaletxea afektatua izanik ustet behartuta legokela Anoetako Udalari informazioa pasatzea”.

Mozioan azaltzen diren hiru puntuak bozketara ematen ditu alkate jaunak, ondoren aipatzen den lehen puntua aho batez onetsirik:	Sometida a votación por el Sr. Alcalde los tres puntos señalados en la moción, se acuerda por unanimidad el punto primero que dice como sigue:
---	--

“1.- Udal honek, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektuaren inguruan, lehendabizi ondo informatuko du ingurugiroan, nekazaritzan, bertako ekonomian, lurrladearen antolakuntzan, energien ekoizpenean bere hornikuntzarako, natur baliabideen ustiapenean,... izango duen eraginez”.

Bigarren puntua, EAE talde politikoko aldeko zazpi botuekin eta EAJ/PNV talde politikoko bi abstentzioekin onesten da, berau ondorengoa izanik:	El punto segundo se aprueba con siete votos a favor del grupo político ANV y dos abstenciones del grupo político EAJ/PNV, que dice como sigue:
---	--

“2.- Informazioa, eztabaida sakona eta serioa egin ondoren, Udal honek, Anoetako herritarrei AHT proiektuaren inguruan kontsulta egingo die”.

Hirugarren puntua, EAE talde politikoko aldeko zazpi botuekin eta EAJ/PNV talde politikoko bi aurkako botuekin onesten da, berau ondorengoa izanik:	El punto tercero, se aprueba con siete votos a favor del grupo político ANV y dos en contra del grupo político EAJ/PNV, que dice como sigue:
---	--

“3.- Udal honek, bitartean, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua gelditzeko bitarteko guztiak jarriko ditu eta egitasmoa berehala geratzea eskatzeko dio Eusko Jaurlearitari, Nafarroako Gobernuari eta Espainiar Estatuko Gobernuari”.

**5.- UEMAKO ESTATUTO ALDAKETEN ONESPENA.**

Alkate jaunak Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga zinegotziari eman dio hitza eta honek bertaratutakoei zera adierazten die:

El Sr. Alcalde cede la palabra al concejal D. Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga quien manifiesta a los presentes:

“UEMAk estatutu aldaketa proposatzen du, ondorengo artikulua izanik:

**1.artikulua.**- UEMA osatzen duten herrien zerrenda eguneratzea.

**4. artikulua**ren erredakzio berria honako hau da:

1).-UEMAren helburu orokorra da euskara zerbitzua eskaintzea bertako partaide diren udal administrazioen barne jarduera zein udalerrietako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritaren hizkuntza eskubideak beramtzeko. Euskara zerbitzuak udaletako erabilera planak diseinatu eta udal langileak trebatuko ditu.

2).- UEMAko udalerrietan kultur ekitaldiak eta jaialdiak antolatzeko kultur zirkuitua jarriko du martxan. Horretarako, kultur zerbitzua antolatuko du mankomunitateak.

3).- UEMAko udalen garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko aholkularitza zerbitzua eratuko du mankomunitateak.

4).-UEMAko udalerrietako merkatarien zerbitzua hobetzeko zerbitzu teknikoa antolatuko du mankomunitateak.

5).- Etorकिन integrazioa halabideratzeko planak diseinatuko ditu mankomunitateak eta horretarako zerbitzua antolatuko du.

6).- Gainontzeko helburu eta zebitzuei dagokienez, legediak mankomunitateei ematen dizkien eskubide eta eskumenen jabe izango da.

7).- Bertako partaide diren udalen ahaleginak emaitza maila gorena izan dezaten, UEMAk hauen ekintzak koordinatu eta beharrezko laguntza teknikoa eskainiko die.

**23. artikulua.** 1 eta 2. puntuak idazkera berria izango dute:

1. Azken udal eroldaren arabera, bere biztanlegoaren %70etik gora euskalduna izatea.

2. Udal eta udalerrri mailan euskaraz bizitzeko konpromisoa.

**Aldi baterako erabakiak.**- Bigarren erabakiaren azken esaldia kentzea.

Kenduko den esaldia hau da: zeinaren lana UEMA sortu bitartean BPZ zerbitzuak bete duen”.

Alkate jaunak galdetzen du:

“Aldaketa hauek onartzearen alde?”

EAJ alderdi politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz zinegotziak zera esaten du:

“Nik komentatu, legealdiaren amaieran etorri zen gai bat da eta ikusi genuen rekorrido luzekoa gainera beraz, Legealdia bukatu aurretik ezin zen erabakirik hartu. Bestalde komentatu UEMAren zerbitzu potentziazio horretan, zenbait arlo, bai EUDEL eta IVAPen eskutik sostengatua daudela, besteak beste, euskararen bultzatzea, lantzea eta formakuntza ematea bai udalean dabilzan pertsonen etab. Zentzu horretan ez dugu ikusten gure aldetik UEMAren beharra puntu guztietan, orduan abstenitu egingo ginatzeke”.

Alkate jaunak galdetzen du:

“Abstentzioa izango litzateke puntu bakarrean edo orokorrean?”

EAJ alderdi politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz zinegotziak zera esaten du:

“Orokorrean”.

UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak aurkezturiko ondorengo proposamena ikusirik:	Vista la propuesta presentada por UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, que dice como sigue:
---	---

**1.artikula.**- UEMA osatzen duten herrien zerrenda eguneratzea.

**4. artikulua**ren erredakzio berria honako hau da:

- 1).-UEMAren helburu orokorra da euskara zerbitzua eskaintzea bertako partaide diren udal administrazioen barne jarduera zein udalerrietako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritaren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Euskara zerbitzuak udaletako erabilera planak diseinatu eta udal langileak trebatuko ditu.
- 2).- UEMAko udalerrietan kultur ekitaldiak eta jaialdiak antolatzeko kultur zirkuitua jarriko du martxan. Horretarako, kultur zerbitzua antolatuko du mankomunitateak.
- 3).- UEMAko udalen garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko aholkularitza zerbitzua eratuko du mankomunitateak.
- 4).-UEMAko udalerrietako merkatarien zerbitzua hobetzeko zerbitzu teknikoa antolatuko du mankomunitateak.
- 5).- Etorrinen integrazioa halabideratzeko planak diseinatuko ditu mankomunitateak eta horretarako zerbitzua antolatuko du.
- 6).- Gainontzeko helburu eta zebitzuei dagokienez, legediak mankomunitateei ematen dizkien eskubide eta eskumenen jabe izango da.
- 7).- Bertako partaide diren udalen ahaleginak emaitza maila gorena izan dezaten, UEMAk hauen ekintzak koordinatu eta beharrezko laguntza teknikoa eskainiko die.

**23. artikulua.** 1 eta 2. puntuak idazkera berria izango dute:

3. Azken udal eroldaren arabera, bere biztanlegoaren %70etik gora euskalduna izatea.
4. Udal eta udalerri mailan euskaraz bizitzeko konpromisoa.

**Aldi baterako erabakiak.**- Bigarren erabakiaren azken esaldia kentzea.

Kenduko den esaldia hau da: zeinaren lana UEMA sortu bitartean BPZ zerbitzuak bete du.

Udaleko AOTk eginiko txostena ikusi ondoren.	Visto el informe emitido por el TAG del Ayuntamiento.
Alkate jaunak akordio proposamena	Sometida por el Sr. Alcalde la

bozkatzera eraman du, ondorengo emaitzekin:

Aldeko botuak: ZAZPI, EAE talde politikokoak.

Aurkako botuak: BAT ERE EZ

Abstentzioak: BI, EAJ talde politikokoak.

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak aurkezturiko estatutuen aldaketaren proposamena onesten da.

propuesta de acuerdo a votación, se obtiene el siguiente resultado:

Votos a favor: SIETE, del grupo político ANV.

Votos en contra: NINGUNO

Abstenciones: DOS, del grupo político EAJ/PNV.

A la vista del resultado obtenido en la votación, se acuerda la propuesta de modificación de estatutos presentada por UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea.

## **6.- ANOETA LANTZENERAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA**

Alkate jaunak bertaratutakoei zera adierazten die:

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes:

“Dirudienez ez da beharrezko plenoan ordezkari izendatzea denak garelako Anoeta Lantzeneko kide. Orduan egingo genukena da Udalbatza bukatzen denean hemen gelditu eta Administrazio Kontseilua egin bost kide izendatzeko”.

Udalbatzan aztertzeko gaia ez denez, puntu hau gai-zerrendatik kendu egiten da.

Se retira el punto del orden del día por no ser un tema a tratar por el Pleno del Ayuntamiento.

## **7.- UDALBILTZARAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA.**

Alkate jaunak bertaratutakoei zera adierazten die:

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes:

“Puntu honetan Udalbiltza izendapenean proposatzen du Gorka Otxoa-Aizpurua eta ni neu izatea”.

EAJ alderdi politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz zinegotziak zera galdetzen du:

“Bakarrik argitzea. Badakigu, kalean badabil Udalbiltza izen bat baina ez dakigu zein Udalbiltzaz ari garen orain artean Ezker Abertzaleak bultzatzen duena edo besteok bultzatzen duguna”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Nik uste, Ezker Abertzaleak ez duela Udalbiltzarik. Udalbiltza bilera, Euskalduna Jauregian egin zen eta Ezker Abertzaleak ez ezik han Euskal Herriko errepresentante oso zabalarekin onartu zen Udalbiltza

egitea eta baiezko botoa eman zuen Ezker Abertzaleak zein EAJ,EA zein beste zenbait taldeek. Nik dakidala Udalbiltza hura ez da desegin eta Udalbiltza hura jarraitzen du Ezker Abertzaleak defendatzen. Geroztik zuek beste Udalbiltza bat defendatzen baduzue ez da gure arazoa”.

Gorka Otxoa-Aipurua zinegotziak erantzuten du:

“Beste izen bat dauka gainera, Udalbiltza izena ez da, Udalbide baizik”.

Udalbiltzarako udal honetako ordezkariak izendatzeko alkatearen ondorengo proposamenaren aurrean:	Ante la propuesta del Sr. Alcalde de nombrar como representantes de este Ayuntamiento en la entidad Udalbiltza a:
---	---

Pedro M <sup>a</sup> Peñagarikano Labaka: Alkatea Gorka Otxoa-Aizpurua arrizabalaga: EAE talde politikoko zinegotzia.	Pedro M <sup>a</sup> Peñagarikano Labaka: Alcalde Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga: concejal por el grupo político ANV.
--	---

Erabakitzen da, Alkate jaunak aurkezturiko proposamena onestea.	Se acuerda, aprobar la propuesta en los términos realizados por el Sr. Alcalde.
---	---

Alkate jaunak bertaratutakoei zera adierazten die:	El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes:
--	--

“Pleno honetako gai zerrenda prestatu ondoren etorri zitzaigun Apattaerreak industrialdean Anoetako udalak ordezkari bezala izendatzeko proposamena, urgentziazkoa bezala hartu beharko genukena”.

Galde-erreguen tartearen aurretik, partaideen aldetik aho batez premiatasuna adierazi ondoren, eta korporakide kopuru legalaren gehiengo absolutoarekin botu baikorra ordezkatzeko dutela kontutan harturik, ondorengo gaia aztertu da:	Antes del periodo de ruegos y preguntas y previa declaración de urgencia por unanimidad de los reunidos, que representa el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, se trató el siguiente tema:
---	--

## **8.- APATTAERREKAKO INDUSTRIGUNEAN, S.Ln ANOETAKO UDALAREN ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.**

Alkate jaunak bertaratutakoei zera adierazten die:	El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes:
--	--

“Lehen ere egon izan da Apattaerrekako ordezkari bezala herriko alkatea eta orain ere proposatuko genuke alkatea izatea”.

Joan den ekainaren 16ean eraturiko Udal berria kontutan harturik eta Alkate jaunren proposamenez, partaideek aho batez erabaki dute Udal honetako Alkate-Lehendakaria den Pedro M <sup>a</sup> Peñagarikano	Teniendo en cuenta la nueva constitución del Ayuntamiento de fecha 16 de junio de 2007 y a propuesta del Sr. Alcalde se acuerda por unanimidad de los reunidos designar al Alcalde-Presidente de
---	--

Labaka jauna “Apattaerreka Industriegunea S.L”n ordezkari izendatzea.

este Ayuntamiento D. Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka representante de esta Corporación en la Sociedad Mercantil “Apattaerreka-Industriegunea, S.L”.

## 9.- GALDE-ERREGUAK

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengoa adierazten du:

“Gure lexislauran zenbait gai pendiente geratu ziren eta Pleno batean ikusi aurretik nola dauden jakin nahi genuke”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Bilkuraren zehar adierazi dudan bezala, badaude zintzilik zenbait gai. Horietako bat Orbinox izan liteke, beste bat Lasarbe... dexente daude. Lehen esan dizudan bezala, gure aholkulariak txostenak egiten ari dira eta zenbait garaitan zailtasunarekin ere aurkitu gara, halako txosten batzuei egiten zaie erreferentzia eta txosten horiek ez dira ageri. Horregatik esan dizut lehen informe horiek emen eogtea komeni litzatekela, ahal den azkarren. Zuk ez badituzu, Pilarri eskatuko dizkiogu. Zerrendatuko dizkizut zeintzu eman beharko zenizkiguken eta horren arabera guk ere pixka bat gehiago aurreratuko genuke. Ez da kasu bakarra, egiten da informeei erreferentzia eta informe hori ez da ageri. Jakin nahi genuke non dauden eta zergaitik falta diren”.

Herritar bakatek galdetzen du:

“Herri Irakaskuntza mankomunitatearen desegiteko prozesua nola dago?”.

EAJ/PNV talde politikoko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak ondorengoa adierazten du:

“Azken baeen fleko batzuk geratu ziren baina gutxienez bidea irekita dago. Borradoreak egon dira, ikastolarekin egon dira gauzak. Ikastolarentzat aldaketa inportatzea denez, nik uste dut egin dugula poliki poliki eta azkenean ikastolak oarntu zuen sistema aldaketa. Gauza batzuk diskutitzeko daude. Langileekin ere, batekin itxi egin zen, besteekin falta zen puzlle hori bukatzea. Nik uste dut bidea nahiko aurreratua dago”.

Herritar bakatek galdetzen du:

“Langileekin hitzeginda dago?”.

EAJ/PNV talde politikoko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak ondorengo adierazten du:

“Langileekin hasieratik hitzeginda dago. Nere ustez ezin da langile bat kanporatu soluzio bat eman gabe, horrekin lotuta zegoen ikastolako hitzarmena. Guk dena batera egin nahi genuke. Jose Marirena ere, gure asmoa zen, ikusi duzue, postu berri bat sortu da langileen postuan, asmoak badaude, ez dela lotu egia da”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Joan den astelehenean egin genuen bilera Irurako Udaletxean, beraiek ere mankomunitateko kide direlako eta bilera nahiko harrigarria suertatu zen. Bestak beste, esan ziguten aipaturiko zirriborroa zuzentzekotan gelditu zela. Aleginak egingo ziren, lehen ere aleginak egin ziren; orain azaldutakoa asteleheneko bileran hitzegindakoa izan zen. Beste gauza bat, Irurako alkatesak horrelako reprimenda bat bota zigun. Dirudienez harremanak izan ziren zuzenean Anoetako udala, ordezkariak, ikastola eta langileak eta alkateari ez zitzaion abisatu. Hori ere entzun genuen!”.

EAJ/PNV talde politikoko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak ondorengo adierazten du:

“Hori ez da erabat egia. Marimi egon da gela honetan bilera bat baino gehiagotan.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Nik ez dut esan egon ez denik. Azkenekoa izngo zen 2006ean, ondoren ez zaio deitu”.

EAJ/PNV talde politikoko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak ondorengo adierazten du:

“Irurak esan zuen langileekin guk hitzegiteko. Indemnizazioarena berak bazekien Irurako Idazkariak aurreratu zuen eta M<sup>a</sup> Doloresena ni pixka bat harrিতa nago, indemnizazioa eskatzen ari omen da”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Berak ez du indemnizazioa eskatu. Berak esaten du bati eskani bazaio langile bezala udal-langilea izan daitekeela zergaitik izan behar du bat eta ez denak? Bere abokatuak esan omen zion zerbitzua jarraitzen badu zerbitzu hori subrogatu egiten dela etg agian ikastolako langile ere izan daitekela eta ez duela berak zertan empresaz aldatu beharrik”.

EAJ/PNV talde politikoko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak ondorengo adierazten du:

“Hori egia da eta hasieran horrela komentatu zen ikastolarekin. Gure asmoa zen ikastolara pasatzea. Ikastolak ordea ez zuen nahi, nahiago zuten enpresa bati ematea eta horregatik egin genuen. Hori beti M<sup>a</sup> Doloresek eta Amaiarekin komentatu da. Egia da beraien nahiago zuten ikastolako langile bihurtzea baina beste erremediorik ezean konforme zeuden, beti ere beraien lanpostua mantenduz. Hori bai izan zela hasiera hasieratik gure helburua, eskubide guztiekin pasatzea. Hau ikastolarekin komentatu zen, ikastolak egin zituen harremanak enpresa batekin; azken finean, bere konfiantzazko enpresa kontratatu behar

delako baina baldintza bat zen M<sup>a</sup> Dolores kontratu langile bezala baldintza guzkiekin. Udalari pixka bat gehiago kostatuko zitzaion baino langile eskubide horiek mantendu egin behar ziren. Monentu honetan Udaletxea edo beste leku batera pasatzea eskatzen badu, Jose Mariren egoera eta berea desberdiank dira. Bakoitzak behar du bere egoeraren arabera erantzuna. Posibilitate guztiak ziren, baina sekula ez zuen eskatu udaletxeko langilea izatea”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Egin genuen bilera batean esan zenuen bazenuela Ibartxiren informeren bat, emango bazenu? Eta lehen Fidelek egin d en %100eko eguneratzeko horretan , gaiak zintzilik daudela eta... egia da poliki goaz eta horrela goaz besteak beste ez dugulako egin nahi zu zorrrek hauteskundeak psate gero, ekainaren 6ean, egin zenuena. Hau da, Plan partzial oso bat dekretuz onartzea. Maiatzaren 27an izan ziren emaitzak, ikusi zenituzten zeintzuk izan ziren eta gero ekainean dekretuz plan partzial bat onartzea legezkoa izano da baina niri ez zait txukunenea iruditu, gauza horiek ikusten ari gara eta denbora pasa egiten da!”.

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak ondorengo adierazten du:

“Lasarbe dagokion planeamentuari, zuen legislaturan, inongo batzordetan ez zenuten tratatu eta ez zen aurretikan “exposición pública” egin et agero plenez onartu.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Batzordetan ikusten ziren. Batzorde batzuta batzuk ez baziren etorri, kulpa ere gurea ote!. Guk egin genuena egin behar baduzue, guk ez dugu zuek egin duzuen egingo. Baina zuek egindakoa egin behar bagenu, zuen planeamentua hankaz gora bota behar genuke, lasai, ez dugu hori egingo, beste era batera egingo dugu”.

EAJ/PNV talde politikoko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak ondorengo adierazten du:

“Plan partzial hori batzodetik pasa zen eta landuta dago”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Nik ez dut esaten landuta ez dagoenik baina plan partzial bat, ez dut uste udaletxe askotan dekretuz onartuko direnik eta gutxiago fetxa horietan. Ez dut uste ahuntzaren gauerdiko ez tula denik plan partzial bat nahiz eta batzordean aztertuta egon. Ez zait oso bidezkoa iruditzen horrelako gazuak dekretuz onestea eta gero beste batzuei beste gauza batzuk exigitzen ari zarete”.

EAE/ANV talde politikoko zinegotzia den Gorka Otxoa-Aizpurua jaunak ondorengo adierazten du:

“Lehenko kultura batzordean galdetu zenuen armariaren aldaketa inguruan diru partida bat horretarako bazegoela. Guk ez dugu ikusi”.

EAJ/PNV talde politikoko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak ondorengo adierazten du:

“Nik uste dut badagoela konsignazioa eta 6. kapituluko dela”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Aurtnegoetan nik ez dut ikusi, egon liteke zehatzago!”.

Herritar batek galdetzen du:

“Jose Ignacio, Diputazioko junteroa zeranez, Anoetako udalarentzak interesa duen gaien bat jakin izanez gero udalari jakinaraztea eskatuko genizuke”.

EAJ/PNV talde politikoko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak ondorengoa adierazten du:

“Bai, Anoetako herriarentzat interesanteak diren gauzak Alkate jaunari jakinaraziko dizkiot”.

Eta beste aztergairik ezean, alkateak bilera amaitutzat eman du iluntzeko zortzi terdiak direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak fede ematen dudalarik.